



30

30. URTEURRENA

---

**Gure oparirik onena  
zure ondoan jarraitzea da**

[www.hurkoa.eus](http://www.hurkoa.eus)

 **Hurkoa**  
URTEURRENA **30** ANIVERSARIO

**ZERBITZU OROKORRAK**

Morlans, 13 - etxabea  
20009 Donostia  
Telefona 943 468 956  
Faxa 943 466 714  
idazkari@hurkoa.eus

**ARRETA TUTELARRA**

Morlans, 13 - etxabea  
20009 Donostia  
Telefona 943 468 956  
Faxa 943 466 714  
idazkari@hurkoa.eus

Gernikako Arbola pasealekua,  
16 20006 Donostia  
Telefona 943 468 956

Ferrerías, 32 - etxabea  
20500 Arrasate  
Telefona 943 770 938

Geltoki, 7  
20301 Irún  
Telefona 943 568 640

Kale Nagusia 60 behe  
20720 Azkoitia  
Telefona 943 468 956

**EGUNEKO ZENTROA**

Ntra. Sra. de las Mercedes  
Nafarroa etorbidea, 31  
20013 Donostia  
Telefona 943 293 111  
cdmercedes@hurkoa.eus

# AURKIBIDEA

<b>Hurkoa, 30 urteko eskarmentua</b> .....	<b>3 orr.</b>
“Beren burua zaindu ezin duten adinekoen pobrezia berri bati erantzuteko sortu zen Hurkoa” .....	<b>5 orr.</b>
<b>Mila esker bihotzez</b> .....	<b>7 orr.</b>
6.000 lagunetik gora artatu ditu 30 urtean .....	<b>9 orr.</b>
<b>Etengabeko bilakaera, arreta hobearen bila</b> .....	<b>12 orr.</b>
Erreferentea adinekoen eta familien zaintzan .....	<b>13 orr.</b>
<b>Urte hau arraroa da, eta asko akordatzen gara lehen egiten genituen gauzez</b> .....	<b>15 orr.</b>
Beti abanguardian .....	<b>16 orr.</b>
<b>30 urte desgaitasunaren tratamendu juridikoa aldatzen</b> ....	<b>17 orr.</b>
Boluntariotza saria .....	<b>20 orr.</b>
<b>Al servicio de la sociedad guipuzcoana</b> .....	<b>22 orr.</b>
Etorkizunerako erronkak .....	<b>23 orr.</b>
<b>Pertsonen eta gizartearen premiei adi egon behar dugu</b> ....	<b>23 orr.</b>
Hurkoa argazkietan .....	<b>25 orr.</b>

## Laguntzaileak



# Hurkoa, 30 urteko eskarmentua

## 2020 - 30. URTEURRENA

### 2010-2019

- 2014** - Hurkoa Zaindus Fundazioaren sorrera, egoitzak eta eguneko zentroa kudeatzeko
- 2014** - Irungo egoitza zabaldu zen
- 2015** - Lehen "Urrezko H" saria eman zitzaizen Aurora Elóseguri eta Evelia Canterari
- 2015** - Tolosako tutoretza-arretarako gunea zabaldu zen

- 2016** - GFHren boluntarioen saria eskuratu zuen
- 2016** - Egoitza zentral berria zabaldu zen Donostian, Morlans pasealekuan
- 2017** - Azkoitiko egoitza zabaldu zen
- 2017** - Kontratu-programa izenpetu zen GFHrekin tutoretzarako eta eguneko zentroko arretarako

### 2000-2009

- 2000** - Matia-Hurkoa Asistentziaren Etikako Batzordearen sorrera
- 2001** - Lehen Plan Estrategikoa
- 2003** - "Hurbiltzen" landa-eremuan adineko pertsonei arreta emateko programa

- 2006** - Tutoretzari buruzko estatu mailako biltzarra Kursaaletan, Atzegirekin eta GFHrekin lankidetzan antolatua
- 2007** - ISO 9001 ziurtagiria "Nuestra Señora de las Mercedes" eguneko zentroan
- 2009** - Arrasateko egoitza zabaldu zen

### 1990-1999

- 1990** - Hurkoa Fundazioaren sorrera
- 1993** - Hurkoak bere gain hartu zituen bere lehen bi tutoretzak
- 1998** - Familiei aholkuak eta laguntza emateko programa, tutoretzak bere gain hartzeko

- 1999** - Hurkoak bere gain hartu zuen adinekoentzako Caritasen programa
- 1999** - "Laguntza Etxea" eta "Nuestra Señora de las Mercedes" adinekoentzako Caritasen eguneko zentrozen kudeaketa
- 1999** - Gaixotasun mental larriak dituzten helduen tutoretza

## **AZKEN 30 URTEETAN, GIZARTEA ALDATU AHALA EGOKITU DA HURKOA PREMIA BERRIETARA**

---

Aldaketa sozialek eta pertsonen bizi-itxaropena luzatzeak inoiz baino premiazkoagoa egiten du erakundeen egitekoa, eta haien artean, Hurkoak gauzatzen duena. Hauskortasun-, mendekotasun- edo babesgabetasun-egoeran dauden adinekoei edo gaixotasun mentala duten pertsoneri arreta egitea, haiek zaintzea eta haien eskubideak defendatzea izan da, hasiera-hasieratik, gure izateko arrazoia. Hurkoak artatzen dituen pertsonen eta haien senitartekoen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea da arreta tutelararen, hauskortasun-egoeran dauden pertsonentzako arretaren eta eguneko zentroaren helburu nagusia. Pandemiak bereziki eragin dio egiteko horri, eta agerian utzi du biztanleria-sektore horien zaurgarritasuna berezia dela.

Hurkoa irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, Donostiako Elizbarrutiko Caritasen ekimenez 1990ean sortua, senitartekoen artean nork zaindu ez zuten adineko desgaituen eskubideak defendatzeko. Pixkanaka-pixkanaka zabaltzen hasi ginen mendekotasunaren inguruko gure jardun-eremua, eta, hala, "Ntra. Sra. De las Mercedes" eguneko zentroan mendekotasun-egoeran dauden adinekoen zaintzarako eta arretarako zerbitzuak garatu genituen.

Cure egitekoaren barruan sartzeko dira tutoretzapean eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen senitartekoak ere; izan ere, haiei lagun egiteaz gain, adinekoen zaintza-lanak egokiro garatzen laguntzen diegu.

Eta hori guztia proiektu zabalago baten esparruan, gure kezka baita detektatzea hauskortasun-egoeran dauden pertsonak, eta aurrea hartzea desgaitasun-, mendekotasun- eta babesgabetasun-egoerei, oso jarrera aktiboa hartuta pertsonen autonomia defendatzeko eta tratatu txarren aurka borrokatzeko. Hori lortuko badugu, ezinbestekoa da gizartea sentsibilizatuago egotea, bai eta zerbitzu soziosanitarioak eta botere publikoak modu koordinatuan jardutea ere.

Hortaz, 30 urteren buruan, Hurkoak artatzen duen premia sozialaren tipologia gero eta handiagoa da. Baina hori gure talde profesionalen konpromisoari, boluntarioen konpromisoari eta beste erakunde batzuen laguntzari esker lortu dugu. 63 profesionalek osatutako lan-taldea dugu eta 145 boluntarioen laguntza. Erreferentzia izan nahi dugu, kalitateari eta berrikuntza sozialari dagokienez, mendekotasun- eta hauskortasun-egoeran edo desgaituta dauden pertsonen arreta tutelarreko, laguntzako eta defentsako egitekoetan, horietako inor arreta egokia jaso gabe egon ez dadin.

# “Beren burua zaindu ezin duten adinekoen pobrezia berri bati erantzuteko sortu zen Hurkoa”

José María Segura - Hurkoako presidente fundatzailea

**JOSÉ MARÍA SEGURA  
NOTARIOAK HURKOA  
FUNDAZIOA ABIAN  
JARTZEKO ERANTZUKIZUNA  
BERE GAIN HARTU ZUEN  
1990. URTEAN. DONOSTIAKO  
CARITASEKO BURU  
HOGEITA BOST URTEZ  
JARDUNDAKOAK, HURKOA  
SORTZEA ZERGATIK  
ERABAKI ZEN ETA ZER  
BILAKAERA IZAN DUEN  
EKARRI DU GOGORA**

Hurkoa 1990eko azaroaren 20an jaio zen ofizialki, Kode Zibilaren erreforma baten ondoren. Erreforma horrek aukera eman zien pertsona fisikoei ez ezik, erakunde espezializatuari ere tutoretza baten ardura hartzeko.

Erakundea asko hazi da denboraren joanean, eta zerbitzu profesionalizatua eskaintzen du. Lehenbiziko gizarte-langileak 1995ean izan genituen, baina 1999an eman zuen benetako jauzia Hurkoak, jarduerari dagokionez.

## **Zer dela-eta sortu zen Hurkoa 1990ean?**

Beti izan dira unean uneko lehentasunezko premiak, eta 80ko hamarkadan Caritas ohartu zen garai hartako gabezia nagusiari erantzun behar zitzaiola, eta gabezia hori ekonomikoa zen. Baina denboraren joanean, beste premia-mota batera eta pobrezia modu berrietara bideratu zuen jarduna.

Urteak aurrera egin ahala, konturatu ginen adinean aurrerago heltzen ginela eta gure artean gero eta adineko gehiago zeudela, eta iruditu zitzaigun adinekoen pobrezia berri bat sortzen ari zela; hau da, dirua zuten baina beren burua zaindu ezin zuten adinekoen pobrezia. Horretaz ohartuta, pentsatu genuen pertsona horien premiei ere erantzun behar zitzaIELA. Zein da kontua? Zaila zela artatzea, ekonomikoki izan ezik, gizarte-laguntzaileen eta beste batzuen laguntzarekin. Baina juridikoki ezin zen, Kode Zibila aldatu zen arte, orduan arautu baitzen pertsona fisikoek ez ezik, pertsonak tutoretzan hartzeko berriaz sortutako erakundeek ere egin zezaketela tutoretzarena. Eta orduan erabaki zuen Caritasek Hurkoa fundazio gisa sortzea, adinekoak tutoretzapean hartu ahal izateko.



**GAUR EGUN,  
DESGAITUTA DAGOEN  
EDO MENDEKOTASUN-  
EGOERAN DAGOEN  
PERTSONA ORO  
HURKOAREN  
BABESPARRUAN  
SARTZEN DA**

**Hurkoaren bilakaerak agerian utzi du erabaki egokia izan zela?**

Adinekoak pobreziatik babesteko asmoarekin egin genuen. Gero, arian-arian, gauzak behar bezala egiten zituen fundazio bat izanik, kasu gehiagoren ardurak eman zitzaizkion, eta, egun, desgaituta dagoen edo mendekotasun-egoeran dagoen pertsona oro Hurkoaren babes-esparruan sartzen da.

**Irudikatzen al zenuen Hurkoa gaur den bezalakoa?**

Hasieran, ez. Oso xumea izan zen sorrera; izan ere, inguruan genituen eta artatzen ari ginen bost edo hamar lagunentzat zen. Baina gizartearen bilakaerak berak, gero eta adineko gehiago egoteak eta Hurkoak egindako lanaren balioak eragin dute modu esponontzialean egitea gora gaur egun artatzen den pertsona- eta familia-kopuruak.

**Eta nola irudikatzen duzu etorkizuna?**

Oso bestelakoa izan daitekeela iruditzen zait. Hasieran, arazo ekonomikoak zituzten pertsonen laguntzen genien, baina, gaur egun, laguntza eta tutoretza behar duten baina premia ekonomikorik ez duten eta ondarea duten pertsona asko dago. Hori hala izanik, fundazioak beharren arabera egiten du aurrera, eta erakunde profesionalizatu bihurtu da.



# Mila esker bihotzez



José Luis de la Cuesta  
Hurkoako presidentea

**HURKOAREN LANA HIRU JARDUERA-ILDO NAGUSIREN BIDEZ GAUZATZEN DA: DESGAITASUN-EGOERAN (ADINEKOAK ETA/EDO GAIXOTASUN MENTALA) ETA BABESGABETASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEN TUTORETZA; NTRA. SRA. DE LAS MERCEDES EGUNEKO ZENTROA, ETA HAUSKOR IZENENKO HAUSKORTASUN-PROGRAMA.**

Premia sozialak areagotzen diren neurri berean egiten dira esku hartzeko eskaerak tutoretzaren alorrean, eta, beraz, baliabide berriak eta garatuagoak behar dira etengabe eta gero eta nabarmenago.

Eguneko zentroari dagokionez, Elizbarrutiko Caritasek eskatuta hartu genuen gure gain haren zuzendaritza eta kudeaketa 1999. urtean. Gipuzkoako zentroetan zaharrena da (1986ko maiatzaren 19an zabaldu zuen atea lehenbizikoz) Las Mercedes zentroa; egun, 62 lagunentzako lekua du eta erreferentea da mendekotasun-egoeran dauden adinekoen zaintzan; horrezaz gain, gure artatzeko moduaren adierazgarri bereziki esanguratsua da.

Azken urteotan argi eta garbi izan dugu babesgabetasun-egoerak ahalik eta azkarren detektatzeko moduak bilatu behar direla, eta hori helburutzat hartuta, programa berri bat jarri dugu abian, Gipuzkoako zenbait udalerrirekin elkarlanean (lehenbiziko etapan eta Iruneko esperientzia pilotuaren ondoren, Arrasate, Azkoitia eta Paisaia udalerriekin). Hauskor programa hauskortasun-egoeran dauden pertsonekin lan egitera bideratuta dago, eta helburua lagun egitea eta abusuei eta tratu ezegokiei aurrea hartzen asmatzea da, egoera larriagotu egiten baita, autonomia eta gaitasuna galtzen ari diren pertsonen eskubideak zein interesak berma eta errespetatu daitezzen eskatuko duen familia- eta gizarte-ingurunea ez dutenen kasuan.

Hogeita hamargarren urteurrena pandemiak baldintzatu du, eta bereziki ekarri nahi ditugu gogora Covid-19 gaitzaren eraginez joan zaizkigun tutoretzapeko lau pertsonak, bai eta gaitzaren ondorioak zuzenean pairatzen ari diren pertsona guztiak ere.



Hiru hamarkada hauen joanean pertsona eta erakunde asko aritu dira Hurkoarekin elkarlanean gure jarduera-ildoak garatzen, gure egitekoen berri ematen eta kontzientziazio-lanak egiten bileren, jardunaldien eta bestelako ekintzen bidez. Zorretan gaude horiekin guztiekin, eta gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu.

Haietako batzuek, edonola ere, bereziki merezi dute gure esker ona. Lehenik eta behin, gure entitate sortzaileak, Elizbarrutiko Caritasek, oraindik ere funtsezko oinarria baita. Bigarrenik, Karitateko Alabek, beren ekarpenarengatik, bai eta Kutxak ere, laguntza jarraitua eta egonkorra eskaini baitio eguneko zentroari eta hainbat proiekturi, zeina ezinbestekoa izan baita gure ibilbidean.

Eta azkenik, baina ez garrantzian azkena delako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailak, ondoan egoteagatik eta etengabe ahalegintzeagatik azken ia bi hamarkadetan baliabide berrien inguruko premia eta eskari etengabekoei eta gero eta handiagoei erantzuten.

Hurkoako 63 profesionalen eta gure 145 boluntarioen izenean, bai eta artatzen ditugun pertsona eta familia guztien izenean ere, mila esker, bihotz-bihotzez.

---

**HIRU HAMARKADA  
HAUEN JOANEAN  
PERTSONA ETA  
ERAKUNDE ASKO ARITU  
DIRA HURKOAREKIN  
ELKARLANEAN GURE  
JARDUERA-ILDOAK  
GARATZEN**



# 6.000 lagunetik gora artatu ditu 30 urtean

**HURKOA 30 URTEKO  
IBILBIDEAN ZEHAR,  
6.000 PERTSONA BAINO  
GEHIAGO ARTATU DITU  
ETA 4.000 FAMILIA  
INGURU AHOLKATU,  
EGOERA BEREZIKI  
KONPLEXUETAN, KASU  
ASKOTAN**

Gure bilakaeraren ezaugarri bereizgarria erabiltzaileentzako arreta-ereduak etengabe berrikustea izan da, gure arretari begira dinamika eta politika aurreratuenak txertatzeko. Horretarako, gure ikuspegia beti izan da zerbitzuak eta zainketak jasoko dituzten pertsonen behar eta nahietara pertsonalizatzea eta egokitzea zerbitzu eta zainketa horiek, beren bizitzaren azken etapak zentzua izan dezan, eta ahalik eta ongizate handienarekin garatu ahal izan dezaten

## TUTORETZA

Arreta tutelarraren alorrean, mendekotasun-egoerako 2.160 lagunek jaso dute Hurkoaren laguntza hiru hamarkada hauetan. Horietatik 1.221 kasutan hartu du esku desgaitasuneko eta tutoretzako izapide judizialetan, eta Hurkoak 953 pertsonaren tutoretza edo kuradoretza hartu du bere gain. Batez ere arazo kognitibo larriak edo gaixotasun mentala duten eta familiarik gabe dauden edo ardurapean nork hartu ez duten adinekoak dira. Zenbaitetan, halaber, tratu txar ekonomikoa, senideen arteko gatazkak eta arduragabekeria- edo abandonu-egoerak dira tutoretzako prozesu bati hasiera emateko arrazoiak.

Kasu guztietan, urtero aurkeztu behar dugu kasuan kasuko epaitegian urtearen joanean gauzatutako jardueren kontu-ematea, tutoretza behar bezala gauzatzen ari dela bermatzeko.

Baina ez ditugu desgaitu deklaraturako pertsonak soilik artatzen, familiei ere laguntza espezializatua ematen baitiegu desgaitasunaren prozedura osoan eta tutoretzan. Hurkoak jardunean daramatzen 30 urtean, 3.926 familiari eman diegu laguntza eta aholkuak, eta haietatik 629 familiari tutoretza-prozesuan beharrezkoak diren izapideetan lagundu diegu.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da pertsona baten legezko desgaitasuna salbuespeneko neurri bat dela, hau da, beharrezkoa denean eta betiere pertsonaren onerako denean soilik aplikatzen dela. Hori dela eta, Hurkoak sentsibilizazio-lan handia egiten du, ohartarazteko zeinen garrantzitsua den gaitasuna dugun bitartean

### TUTORETZA-ALORREAN

Mendekotasun-egoerako

**2.160** laguni laguntza

**1.221** kasutan, izapide  
judizialetan esku hartu

**953** lagun tutoretzapean

**3.926** familiari aholkularitza

etorkizunean gerta dakizkigukeen egoerei aurrea hartzea, besteak beste, bizi-testamentua edo aurretiazko borondateen agiria eginez. Hartara, mendekotasun-egoerara iritsiz gero zer arreta-mota eta zaintza nahi dugun jaso erabaki dezakegu, gure eskubideak, balioak eta nahiak kontuan hartuta.

### HAUSKORTASUNEAN

236 lagun artatu

### EGUNEKO ZENTROAN

2.559 lagun artatu

### HAUSKORTASUNA

Azken urteotan, Hurkoak bereziki erreparatzen dio hauskortasun-arretari, mendekotasunaren aurreko etapa den aldetik; izan ere, egoera horretan dauden pertsonen laguntza egokia emanez gero, mendekotasun-maila atzeratu daiteke, eta haien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetu ere bai. Beren kabuz bizimodu normala egiteko arazoak edukitzen hasten diren pertsonak dira, eta horrek egoera zaurgarrian jartzen ditu, eta, beraz, zatiketa-, marjinazio- eta mendekotasun-arriskua izan dezakete.

Gaurdaino hauskortasun-egoeran dauden 236 lagun artatu ditugu Gipuzkoan. Horretarako, hauskortasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko eta haiei laguntzeko eredu bat zehaztu dugu, eta Adinberri fundazioaren laguntzarekin Hauskor programa jarri dugu abian aurtan, hauskortasun-egoeran dauden adinekoak artatzeko ereduia ezarri eta garatzeko. Hala, Arrasate, Azkoitia eta Paisaia udalerrietan proiektu pilotuak gauzatu ditugu, bakarrik bizi diren eta hauskortasun-egoeran dauden 65 urtetik gorako 50 adineko baitaude.

Urrats hori ematea posible izan da hauskortasunari buruzko txosten bat egin zelako 2017an Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin; helburua zera zen: sozialki pertsona hauskorren kontzeptua zehaztea, eta baliabideak eta legearen zenbait alderdi aztertzea. Horren ildo beretik, bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako adinekoen hauskortasunaren prebalentziari buruzko azterlan bat egin dugu 2019an, Adinberriren laguntzarekin, jakiteko zein den haien benetako egoera, aztertzeko zer dakiten arretarako baliabideez eta aurrea hartzeko gerora izango dituzten premiei. Azterlan horren arabera, Gipuzkoan 65 urtetik gorako 5.000 pertsona inguru daude hauskortasun-egoeran.

**AZTERLAN BATEN  
ARABERA GIPUZKOAN  
65 URTETIK GORAKO  
5.000 PERTSONA INGURU  
DAUDE HAUSKORTASUN-  
EGOERAN.**



---

## **6.000 LAGUNETIK GORA ARTATU DITU 30 URTEAN**

### **EGUNEKO ZENTROA**

80ko hamarkadaren amaieran, Caritasek adinekoentzako bi eguneko zentro kudeatzen zituen: 'Laguntza Etxea' eta 'Nuestra Sra. de las Mercedes'. Hurkoak 1999an hartu zuen bere gain Caritasen adinekoen programa eta bi eguneko zentroen kudeaketa; gero, urte batzuen buruan, bi zentroak bat egin eta 'Nuestra Sra. de las Mercedes' sortu zen Gros auzoan.

Harrezkero, 2.559 lagun artatu ditu Hurkoak zentro horretan, eta gaur egun mendekotasun-egoeran dauden adinekoen erreferentea da Gipuzkoan. Azken 30 urteotan, etengabe txertatu ditugu metodo eta zerbitzu aurreratuenak, zentrorra jotzen duten eta haien senitartekoen bizi-kalitatea hobetzeko. Erabiltzaile bakoitzaren beharrei aurre egiteko arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu, eta bereziki zaintzen ditugu alderdi fisikoak, emozionalak, kognitiboak eta sozialak. Zentroak mendekotasuna eta mendekotasun handia duten 62 plaza ditu itunduta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

# Etengabeko bilakaera, arreta hobearen bila



Susana Montesino

Hurkoako tutoretza-  
arloaren arduraduna

**HURKOA ZORIONEKO DAGO. 30 URTE BETE DITUGU ETENGABEKO BILAKAERAN, GURE ESPARRUAN GEHIEN BEHAR DUTENEI ARRETA HOBEA ESKAINTZEKO.**

Hurkoa 1990. urtean sortu zen Gipuzkoako Caritasen ekimenez, senitartekoen artean ardurapean hartzeko inor ez zuten adineko pertsona desgaituak tutoretzapean hartzeko eta artatzeko. Ia-ia hasieratik ohartu ginen familientzako laguntza eta aholku gabezia, haiek berek hurbilekoak tutoretzapean hartu ahal izatearen inguruan; hala, 2004az geroztik daukagu familiei laguntzeko zerbitzua.

Nahiko hasieran konturatu ginen, halaber, mota horretako tutoretza-zerbitzua behar zela gaixotasun mental larria eta familiaren babesa ez zuten pertsonentzat. Zenbait erakunderekin beste aukera batzuk bilatzen eta barne-gogoeta egiten urte batzuk eman ondoren, 1999an erabaki zen Hurkoaren arreta-zerbitzua zabaltzea gaixotasun mental larriko adinekoei ere.

Bestalde, Hurkoan betidanik izan dugu xedetzat adinekoek autonomia ahalik eta denbora luzeenean izan dezaten lortze aldera lan egitea. Eta horregatik du Hurkoak arreta tutelarra emateko zerbitzuaz gain, hauskortasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta zerbitzua ere.

Horren ildotik, Hurkoak Hurbiltzen programa abian jarri eta garatu zuen Orendain udalerrian eta eskualdean, 2003tik 2011ra bitartean. Horrezaz gain, urteak daramatzagu prestatzen eta informatzen bereziki adinekoak, bai bakarka bai kolektibo gisa, aurretiazko erabakiak hartzeari buruz, gerora

sor daitezkeen arazoei aurrea hartu ahal izateko, horretarako egon badirelako bitartekoak, hala nola aurretiazko borondateen agiria, prebentziozko ahalak eta autotutoretzaren izendapena. Adineko askok zailtasunak dituzte, nahiz eta gaitasun-aldaketa behar duten egoeran ez egon, beren kabuz kudeatzeko bizitzaren zenbait arlo, jarduera edo egiteko jakin batzuk betetzeko eta/edo zenbait erabaki hartzeko, eta egoera horrek kezka eragin dio Hurkoari, sumatzen duelako babesa eta laguntza behar dutela. Horren aurrean, Hurkoak azterlan bat egin zuen 2014an, adinekoen hauskortasun horren definizioa zehazteko, eta hauskortasun horri irtenbidea emateko laguntzak eta zerbitzuak deskribatzeko. Azterlana egin ondoren, hauskortasun-egoeran dauden adinekoak artatzeko programa bat diseinatu dugu; lehenbizi, Irun udalerrian esperientzia pilotu bat egin dugu, eta, egun, Azkoitia, Paisaia eta Arrasate udalerrietan ari gara garatzen programa hori, Hauskor izenekoa, Adinberriren dirulaguntzarekin.

Hori guztia gauzatu ahal izateko ezinbestekoa izan da Hurkoan gaur egun dauden eta 30 urtean gurekin izan diren langile guztien eta boluntarioen inplikazioa, ahalegina eta haiek guztiek gauzak ondo egiten asmatzea. MILA ESKER, GUZTI-GUZTIO!! Eta indar, gogo handia beste 30 urtez lan egiteko orain esku artean ditugun proiektuak eta gerora abian jarriko ditugunak gauzatzeko.

# Erreferentea adinekoen eta familien zaintzan



Nieves Saiz

'Ntra. Sra. de las Mercedes' eguneko zentroko arduraduna

**TALDE-LANA  
FUNTSEZKOA DA  
ARRETA BEROA ETA  
KALITATE ONEKOA  
EMATEKO**

**'NTRA. SRA DE LAS MERCEDES' EGUNeko ZENTROA  
DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO CARITASEN EKIMENEZ JAI  
ZEN, 'LAGUNTZA ETXEA' EGUNeko ZENTROAREN (1983)  
ESPERIENTZIA OINARRI HARTUTA.**

1998. urtearen amaieran haren kudeaketa Hurkoa fundazioak hartu zuen bere gain, eta 2002an bi zentroek bat egin eta 'las Mercedes' sortu zen; egun, 62 lagunentzako lekua du.

Las Mercedes zentroa hasieratik izan da erreferentea adinekoen eta familien zaintzan, eta etengabeko berrikuntzan zein hobekuntzan -bai 1986an ateak zabaldu zituenean eta bai 1995ean asteburuetako eta jaieguneko modalitatea sortu eta ezarri zuenean-; horrezaz gain, ISO 9001 kalitate-ziurtagiria lortu zuen 2007an, eta pertsona erdigunean jartzen duen arreta-ereduaren aldeko apustua egin zuen.

Lan-taldea eta boluntarioak oso inplikaturik daude, eta haien talde-lana funtsezkoa da arreta beroa eta kalitate onekoa emateko, helburu nagusia baita familiari lagun egitea mendekotasun-egoeran dagoen adinekoa bere ingurunean bertan zaintzeko, eta, aldi berean, beren bizi-proiektua garatzen jarraitzeko.

Las Mercedes zentroan giroa atsegina, samurra da, eta aisiak eta arretak bat egiten dute, erabiltzaileek ahalik eta autonomia handiena izan dezaten. Diziplinarteko Arreta Plan Pertsonalizatua aplikatzen dugu esku-hartzeetan, adinekoaren gaitasunak, nahiak, gustuak, ohiturak eta beharrak oinarri hartuta; jarduera esanguratsu ugariarekin garatzen da, non parte-hartzea eta gogobetetasuna oso handiak baitira. Hala, esan dezakegu urte hauetan guztietan adineko pertsona askori eta haien familiei lagundu diegula ongizatea hobetzen, eta zoriontasuna, lasaitasuna, segurtasuna eta bizi-kalitatea ematen.

Urte hauetan zehar, ezinbestean egokitu egin behar izan dugu aldaketetara, besteak beste, erabiltzaileen profiletara (autonomoak eta mendekotasun handia dutenak), haien familien egoeretara (emakume zaintzaileak, emakume landuna-zaintzailea), bizimoduan eta gizartean izan diren aldaketetara eta legedi berrira (Eguneko zentroi buruzko 2020/2000 Dekretua eta irisgarritasunari buruzko legea), betiere erdigunean erabiltzailea eta bere familia jarrita.





**KONFINAMENDUEK  
ONDORIO LARRIAK  
ERAGIN DIZKIE  
ERABILTZAILEEI, ALOR  
GUZTIETAN**

Urte hau, 2020a, Covid-19 gaitza dela-eta guztiontzat ere hain konplexua izan den urtea, erronka handia izan da guretzat: konfinamenduko hilabeteak, ekainean ateak zabaldu, uztailean berriro itxi, eta urriaren 25az geroztik berriro ere itxi kutsatze-kopuru handiagatik. Horrek guztiak eguneroko lana erabat aldatzea ekarri du, hala nola sektorizatzea eta jarduera asko bertan behera uztea. Eta hain hilabete gogorak igaro ondoren, konturatu gara “burbuiletan bizitzea” ez dela egokiena; elkarrekin egotearen falta nabaritzen dugu, bai eta gure festak, irteerak eta kontzertuak egitearena ere, baina, batez ere, elkar besarkatzearen falta sentitzen dugu.

Konfinamenduek ondorio larriak eragin dizkie erabiltzaileei, alor guztietan. Familiei ere egun batetik bestera aldatu zaie lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko modua, eta osasuna ere bai.

Etorkizunari begira, “etxean bizi nahi badugu”, eguneko zentroen garrantzia azpimarratu behar dugu, horiek baitira laguntza-osagarri bikainenak eta gutxien erabilienak. Eta aldi baterako itxialdia egin behar denean edo adinekoaren egoera aldatzen denean, laguntza eta zainketa duinen sare bat bermatu ahal izatea lortu behar dugu; horretarako, “Babesarea” izeneko proiektu berri bat ari gara lantzen Matia Fundazioarekin; proiektu horren bidez lortu nahi da arreta modu arinagoan, eraginkorragoan eta pertsona bakoitzaren zaintzan parte hartzen duten eragile guztiekin koordinatuta ematea.

# “Urte hau arraroa da, eta asko akordatzen gara lehen egiten genituen gauzez”



Loli Arrieta

Eguneko zentroaren  
erabiltzailea

«Oso pozik joaten gara eguneko zentrora; baina urte hau arraroa da, eta asko akordatzen gara lehen egiten genituen gauzez. Festa eta jarduera asko egoten ziren; orain, giroa makalxeagoa da: musukoa jantzi behar dugu, elkarrengandik urrunago egon behar dugu, orain ez dugu elkarrekin jaten lehen egunero elkarrekin esertzen ginen lau lagunok... Askok akordatzen gara lehengo garaiez».

«Konfinamenduan zehar, asko sentitu nuen zentroaren falta, batik bat giroaren eta janariaren falta; egia da, ordea, maiz hots egiten zidatela telefonoz zentrotik, zer moduz nengoen jakiteko».

«Bakoitzak gehien gustatzen zaiona egiten du. Niri asko gustatzen zait kartetan aritzea; izan ere, gaztetan, igande arratsaldeetan, kartetan aritzen ginen gurasoekin, ez genuen-eta zinemara joateko dirurik. Lagunekin aritzen nintzen kartetan zentroan; baina, orain, hori ere ezin dugu egin...».

«Jende zoragarriz inguratuta nago. Zentroan, langileak primerakoak dira: zaintzen gaituzte, bihotza alaitzen digute, eta maitasun handia ematen digute».

«Zentroaren etxea ikusi nuenean, nebari esan nion hara joan nahi nuela, eta hark egin zituen gestio guztiak. Astelehenetik ostiralera joaten naiz eguneko zentrora. Asteburuetan, etxean gelditzen naiz nebarekin. Neba Bizkaian bizi da, eta ni bisitatzera etortzen da».

# Beti abanguardian

**HURKOAN ETENGABE  
DIHARDUGU LAGUNTZA  
EMATEN DIEGUN  
PERTSONENTZAKO  
ARRETAREN KALITATEA  
ETA SAMURTASUNA  
HOBETZEKO  
AUKERA EMATEN  
DUTEN DINAMIKAK,  
METODOLOGIAK ETA  
ZERBITZUAK GEHITZEN**

Kezka hori arreta tutelarrari, eguneko zentroari eta hauskortasun-egoeran dauden pertsonentzako arretari buruzkoa da, baina erakundearen parte diren pertsona, profesional eta boluntario guztiei eragiten die.

Testuinguru horretan kokatzen dira etengabe egitea prestakuntza-ekintzak, eguneko zentroak kalitatearen ISO 9001 ziurtagiria jaso izana, asistentziaren etikako batzordea eta bioetikako batzordea sortzea eta Pertsona Ardatz hartzen duen Arreta Integraleko dinamikak ezartzea. Orain, lantzen ari garen alderdietako bat zera da: Kode Etikoa eta Betetze Penala (edo Compliancea), funtsezko tresna den aldetik, Hurkoak gobernantza ona eta gardentasuna lortzeko.

Horrezaz gain, gizartea eta instituzioak sentsibilizatzen saiatzen gara, eta, horretarako, askotariko jardunaldiak eta biltzarrak antolatzen ditugu eta argitalpenak ere baditugu, guztiak ere, besteak beste, honako gai hauekin zerikusia dutenak: tutoretza, adinekoenganako tratu txarra, gaixotasun mentalaren errealitate soziosanitarioa, desgaitasun-egoerari aurrea hartzea, hauskortasuna eta legearen inguruko informazioa.

Egiteko hori guztia gauzatu ahal izateko, aliantza egonkorak ditugu honako erakunde hauekin: Caritas, Futupema, Nagusilan, Hedatzen, Lares, Adinkide, Sargi eta Zorroaga Fundazioa. Horiez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Donostiako, Arrasateko, Azkoitiko eta Pasaiaiko udalekin ere baditugu lankidetzak-lerroak. Jarduera-ildo hori funtsezkoa izan da eta izango da aurrerantzean ere gure lana egiteko eta gerora sortuko diren erronka eta premia berriei aurre egin ahal izateko.

**BIDEOA  
IKUSTEKO  
KLIKATU**



Maite Peña  
Gipuzkoako Foru  
Aldundia



Aitziber San Román  
Donostiako Udala



Loreto Osa  
Pasaiaiko Udala



Rakel San Sebastian  
Adinberri Fundazioa

# 30 urte desgaitasunaren tratamendu juridikoa aldatzen



Aurora Elósegui Sotos  
Magistratu ohia

## **AZKEN HOGEITA HAMAR URTE HAUEN JOANEAN, PERTSONAK ZEIN GIZARTEAK ALDATU EGIN DIRA, LEHENTASUNEI, PREMIEI ETA BALIOEI DAGOKIENEZ.**

Gizarteak zein pertsonak egituratzen eta antolatzen dituzten legeak aldaketa horietara egokitu dira. Desgaitasunaren tratamendu juridikoa horietako bat da. Horretaz jabetzeko, oinarrizko printzipio hau hartu behar da kontuan ezinbestez: pertsona guztiek, pertsona izateagatik, gaitasuna dute legeek aitortzen dizkieten eskubide eta betebeharren titular izateko eta haietaz baliatzeko. Hala ere, pertsona guztiak ez daude ezagutza- eta borondate-baldintza beretan beren kabuz moldatzeko. Izan ere, badira pertsonak urritasun batez ere intelektualak dituztenak, beren burua zaintzeko zailtasunak dituztenak edota beste pertsona batzuekin edo inguruarekin elkarrekintzan jarduteko ezintasuna dutenak. Urritasun edo ezintasun horiek eragotzi egiten dute gainerako baldintza berberetan haiek parte-hartze osoa eta efektiboa gauzatzea gizartean.

Egungo Kode Zibilak egoera hori “Ezgaiketa” goiburu duen tituluan arautzen du, eta honela dio: “Nor bait ezgaia dela adierazteko, nahitaezkoa da horretarako epaia ematea legeak ezarritako arrazoien ondorioz. Ezgaiketa-arrazoiak dira norberari bere burua gobernatzea galarazten dioten gaixotasun edo akats iraunkorrak, fisikoak izan nahiz psikikoak izan”. Pertsona bat desgaitu deklaratzeko berekin dakar hari zaintza-mekanismo bat jartzea, eskuarki tutore bat, epaiak eskatzen dituen arlo juridikoko esparruetan hura ordezkatzeko eta haren izenean jarduteko ahalmena duena, desgaitasun-epaiek desgaitasunaren gradua eta irismena zehaztu behar baitituzte.

Arau hori funtsean 1983. urtekoa da, eta haren interpretazioan garrantzi handiko aldaketa gertatu da. Hau da, desgaitasun-prozedurak eskubideen murrizte-prozesutzat hartzen ziren, pertsonaren borondatea deuseztatu eta haren tutorearen esku uzten zituztenak, eta, gainera, epaiak ia berdinak ziren denentzat (zehaztugabeak, orokorrak eta abstraktuak); orain, ordea, desgaituek beren eskubideak gainerakoek baliatzen dituzten baldintza ahalik eta berdinetan balia ditzaten errazteko bitartekotzat hartzen dira, desgaitasun-deklarazioak indibidualizatu egiten dira, desgaituaren

**EZINBESTEKOA  
DA KONTURATZEA  
DESGAITUARI LAGUNDU  
ETA BABESA EMANGO  
BAZAIIO, EGITEKO HORI  
PROFESIONALITASUNEZ,  
DEDIKAZIOZ,  
HURBILETIK,  
MAITASUNEZ ETA  
ERANTZUKIZUNEZ  
BEREN GAIN HARTZEKO  
PREST DAUDEN  
PERTSONAK EDO  
ENTITATEAK**


borondatea ahalik eta gehiena errespetatzen da (baldin eta borondatea jasota badago edo zentzuz adierazi badezake), eta zaintza-neurriak antolatzen dira bakar-bakarrik desgaituaren "bizitza hobea" lortzeko onuraren bat eragin badezake.

Desgaitasunaren kontzeptu-aldaketa horretan, epaitegi espezializatuek asko lagundu dute. Izan ere, zuzeneko eta etengabeko harremana izan dute desgaitasun batez ere intelektualekin, gai hori kudeatzen duten instituzio eta estamentu guztien laguntza eta elkarlana izan dute, lehendik ez zituzten jakintza-arlo anitzeko ezagutzak eskuratu behar izan dituzte, eta ordenamendu juridikoaren interpretazio integralak eman behar izan dituzte formula berriak bilatzeko, hain zuzen, desgaitasunaren gai hain konplexua lantze aldera, legearen tratamendua azalekoa, sakondu gabea, soila eta ez-nahikoa baita. Zuzenbideko profesionalen prestakuntzak gabezia berberak ditu. Egiteko hori osatu gabe dago. Epaitegi espezializatu gutxi daude, eta lege-alorreko eskasia dela-eta, epaitegi guztietan ez da gaia modu berean ulertzen; horren ondorioz, ziurgabetasuna eta nahasmena sortzen dira, eta horrek ez du batere laguntzen desgaitasunak berekin dakarren zaintza-lana.

Desgaitasunaren tratamendu juridikoan izandako aldaketarako funtsezko beste elementuetako bat hau da: instituzio publikoekin elkarlanean desgaituen zaintza- eta laguntza-funtzioa bere gain hartu duten pertsona eta entitateei aitortu zaien garrantzia. Ezinbestekoa da konturatzea desgaituari lagundu eta babesa emango bazaio, egiteko hori profesionaltasunez, dedikazioz, hurbiletik, maitasunez eta erantzukizunez beren gain hartzeko prest dauden pertsonak edo entitateak eduki behar ditugula, modu horretan jarduteko bai laguntza eman beharreko pertsonetik (haien autonomia eta borondatea lehenetsita arreta planifikatzean), eta bai hori erabakitzen duten administrazio-agintari eta agintari judizialekiko.

Hurkoa fundazioak, irabazi asmorik gabeko erakundeak, 30 urte daramatza hauskortasun-, mendekotasun- edo babesgabetasun-egoeran dauden adinekoei edo gaixotasun mentala duten pertsoneri arreta egiten, haiek zaintzen eta haien eskubideak defendatzen. Egiteko horretan, aitzindaria izan da artatzeko moduan. Zaintza-neurriren bat bere gain hartu aurretik, pertsonaren balorazioa egiten du, askotariko alderdiak kontuan hartuta: osasuna, haren hurbilekoak, ingurunea, baliabide ekonomikoak, bai eta elkarlanean aritzeko prestutasuna eta laguntza jasotzeko jarrera ere. Berebiziko garrantzia du artatuko den pertsona ezagutzeak, eta hark artatuko duena ezagutzeak eta harengan konfiantza edukitzeak ere bai. Hori guztia oinarri hartuta, banakako arreta-plana egiten da, hori baita desgaituari eman beharreko eta eman diezaiokeen laguntza gauzatzeko bitartekoa. Plan hori malgutasunez aplikatu beharrekoa da,





**BEREBIZIKO  
GARRANTZIA  
DU ARTATUKO  
DEN PERTSONA  
EZAGUTZEAK, ETA  
HARK ARTATUKO  
DUENA EZAGUTZEAK  
ETA HARENGAN  
KONFIANTZA  
EDUKITZEAK  
ERE BAI**

desgaitasunaren errealitateak eta batez ere gaixotasun mentalarenak agerian uzten baitu pertsona horien egoerak eta patologia denboraren joanean aldatu daitezkeela, eta sortu daitezkeen egoera berrietara egokitu eta moldatu behar dela laguntza. Modu horretan egin da lan fundazioan, artatzen diren pertsonen laguntzarekin.

Izaera horrek, jarduteko modu horrek bultzatu du Hurkoa hauskortasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeko modu berriak aurkitzera. Zahartze-prozesua progresiboa da. Normalean prozesu horrek berekin dakar ahalmen intelektiboen eta nahimenezkoen narriadura, nahasmendua eta desorientazioa. Halako egoeretan zaila izan daiteke pertsona horientzako erabakiak hartzea, eta askotan, hirugarrenen abusua eta manipulazioa gertatzen da, haien kalterako. Ahalmena nabarmen galdu ez duten baina segurtasun-gabezia eta hauskortasuna mugako mailan duten pertsona horiek modu berezian artatu behar dira, eta botere publikoek zahartze-prozesuan laguntzeko ekimenak sustatu behar dituzte, sozialki jardun ahal izan dezaten. Pandemiak orain arte askorentzat ikusezina izan den errealitatea azaleratu du, hau da, hauskortasun-egoeran dauden eta etxean bakarrik bizi diren adinekoen errealitatea. Egoera horren gogoeta solidarioa egin behar da, eta egoera horri aurre egiteko elkarlan sozio-sanitarioa sendotu.

Alderdi horiek guztiak legearen bidez arautu behar dira. Horren inguruko arau guztiak eguneratuko dituen araudia behar dugu: errealista, oinarri izango dituen desgaitasuna duten pertsonak, kontuan izanik haien duintasunak haientzat propio babes-mekanismoak ezartzea eskatzen duela. Araudi horrek ez lituzke bertan behera utzi behar epaileek, fiskalek, auzitegiko medikuek, osasun-zerbitzuakoek, gizarte-zerbitzuakoek eta tutoretzako instituzioek orain arte pixkanaka lortu dituzten aurrerapenak. Desgaituak zaintzen diharduten erakundeek praktikan eraginkorrak direla egiaztatu dituzten laguntza-bitartekoak ezarri beharko lituzke, profesional horien iritzia eta lankidetzaren ezinbestekoak baitira. Batuko duen lege bat, ez zatituko duena.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruz New Yorken 2006an izandako Konbentzioan hainbat jarraibide orokor eman ziren, eta horiek gure errealitate sozialera eta artatzeko modura ekarri behar dira, Espainiak ere berretsi baitzituen, eta, beraz, gure barne-zuzenbidean daude. Ez dakit zer urrats eman diren desgaitasunaren alorreko legeria zibila eta prozesuko legeria aldatzeko oraindik orain onartu den lege-aurreproiektua egiteko. Nahiago nuke hurrengo izapidean beteko balira gaiaren inguruko epaitegi espezializatu batean 20 urtetik gorako eskarmentua oinarri hartuta adierazi ditudan nahiak eta gogoak, eta legediak erantzungo balie desgaitasunaren tratamendu juridikorako guztiok azaldutako premiei eta eskakizunei.



# Boluntariotza saria

## **BOLUNTARIOEK HURKOAN EGITEN DUTEN LANA FUNTSEZKOA DA GURE EGUNEROKOAN, DUELA 30 URTEZ GEROZTIK**

Boluntarioek Hurkoan egiten duten lana funtsezkoa da gure egunerokoan, duela 30 urtez geroztik. Haiek gabe, ezingo genuke gure lana egin; alegia, ezingo genieke arretarik eman hauskortasun- eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsoneri. Eginkizun hori ordainezina da. Bakardade-sentipena da hauskortasunaren etsairik handiena, eta laguntze-lana funtsezkoa da. Zoritxarrez, pertsona askorentzat, seniderik ez daukatenez, senide baten gisako funtzioa betetzen dute boluntarioek: zaindu egiten dituzte, eta haietaz arduratzen dira.

Boluntario-lana edonork egin dezake; izan ere, ez da beharrezkoa alde zuzenetik ezagutza edo prestakuntza jakin bat izatea. Behar den bakarra denbora da, eta denbora hori modu altruistan gizartearen onerako erabili nahi izatea. Dena den, Hurkoan, zenbait prestakuntza-ekimen antolatzen ditugu, boluntarioek jarduera-ildo komun batzuk izan ditzaten eta beren esperientziak partekatzeko aukera izan dezaten. Gainera, boluntario guztiak diziplina anitzeko lantaldeetan integratzen dira, Hurkoako profesionalekin batera, pertsona bakoitzari behar duen laguntza emateko.

Gaur egun, Hurkoan, adin guztietako boluntarioak daude, bai gazteak, bai adinekoak. Boluntarioen batez besteko adina 66 urte da, eta boluntarioen % 75 emakumea da, eta % 25 gizona.

Boluntarioen jarduerak, besteak beste, konpainia egitearekin, elkarrizketan aritzearekin, entretenitzearekin eta laguntza ematearekin daude lotuta. Jarduera horien artean daude, esate baterako, erosketak egitera laguntzea, egunkaria irakurtzea eta kartetan aritzea. Jardueren helburua da arreta pertsonalizatua ematea, bai eta kalitatea eta goxotasuna transmititzea ere, maitasunaren eta hurbiltasunaren bidez. Baina badaude, halaber, administrazio-lanak eta kudeaketan laguntzeko lanak egiten dituzten boluntarioak.

2016an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Boluntarioen Saria eman zion Hurkoari, «mendetasun-egoeran edo babesik gabe dauden adinekoen eta gaixotasun mentala duten pertsonen eskubideak zainduz eta defendatuz egiten duen lan solidario eta desinteresatuagatik».




#### **BEGOÑA ZUBIMENDI**

«Pixka bat ematen dugu gure aldetik, baina sekulako ilusioa eta bizipoza jasotzen dugu bueltan, eta gehiago konprometitzeko gogoia ematen digu; eta horrek pentsarazten digu, nolabait, gizarte hobe bat eraikitzen laguntzen ari garela...»




#### **MARIA JESÚS SESMA**

«Sinestezina da zer egin dezakezun pertsona horien alde, besterik gabe konpainia eginez, maitasun pixka bat emanez eta elkarrizketan arituz. Eta, azkenean, konturatzen zara haiek behar zaituztela, baina zuk ere haien beharra duzula»



#### **PAKITA GARMENDIA**

«Orain, bisitak eta topaketak hotzagoak dira, distantzia batetik edo mahai baten inguruan, erdian panel bat dagoela, baina garrantzitsua da hemen egotea; bestela, esaten dizute: zergatik ez zara etortzen?»



#### **KATI RÍOS**

«Konfinamenduan zehar, kezkatuta egon naiz, egoiliarrengan pentsatzen, azkenean zure familiaren parte bezala dira eta. Oso harreman berezia egiten dugu pertsona horiekin, eta gure hutsunea sentitzen dute; dena den, kontaktuan egon gara, bideo-deien bidez»



# Gipuzkoako gizartearen zerbitzura

Konpromisoa eta profesionaltasuna dira Hurkoako langileak definitzen dituzten bi ezaugarri. Profesional-talde horiek bultzatzen ditugun jarduera guztiak antolatzen eta garatzen dituzte, eta boluntarioen laguntza koordinatua izaten dute beren lanak egiteko. Talde profesional hori 63 lagunek osatzen dute eta zerbitzu bakoitzaren beharretara eta ezaugarrietara egokitutako profilak dituzte.

Tutoretzaren kasuan, langileak hiru lanbide-kategoriatan banatzen dira nagusiki: erreferente juridikoak (tutoretzapeko pertsonen gestio juridikoez arduratzen diren zuzenbide-formakuntza duten pertsonak), gizarte-erreferenteak (gehienak gizarte-langileak dira, eta tutoretzapeko pertsonen arreta eta zuzeneko jarraipena hartzen dute beraien gain), eta administrazio-erreferenteak (tutoretzapeko pertsonen ekonomia- eta ondare-administrazioaz arduratzen dira).

Taldeek modu koordinatuan egiten dute lan, tutoretzapeko pertsona bakoitzari modu pertsonalizatuan erantzuteko, banakako arreta

planen arabera.

Bestalde, tutoretza arloko familiei laguntzeko eta aholkuak emateko zerbitzua gizarte-langile batek eta zuzenbidean lizentziadun batek osatzen dute.

Hauskortasunaren arloan 4 pertsonak egiten dute lan, gizarte langile batek koordinatuta eta Arrasate, Azkoitia eta Pasaiaiko udalerrietan kokatuta.

Eguneko zentroan, batez ere, laguntzaile geriatrikoek osatzen dute langilegoa, baina baditu gizarte-langile bat, erizain bat, fisioterapeuta bat, jardueren monitorea, gidariak, podologoak, ile-apaintzailea eta garbitzaileak ere.

Hurkoa eta Hurkoa Zainduz fundazioei zerbitzuak ematen dizkion gerentzia-taldea lau pertsonak osatzen dute, kanpoko profesionalen laguntzarekin.

Talde hauen lanarekin batera, bi patronatuetako kideek betetzen duten lana ere garrantzitsua da. Izan ere, boluntario izaerarekin jardunez, Hurkoaren oraina eta etorkizuna Gipuzkoako gizartearen zerbitzura dagoen entitate gisa definitzeko inplikazioa etengabe berresten dute.

# Etorkizunerako erronkak

30. urteurren hau ez da bakarrik iraganera begiratzeko eta 30 urte hauetan egindako lanaren inpaktu soziala aztertzeke abagunea. Batez ere abagunea da etorkizunari begirako erronkak aztertzeke eta Hurkoaren patronoek, profesionalak eta boluntarioek zahartzearekin eta adinekoen ongizatearekin lotutako alderdietan gizarte gisa erronka horiekiko dugun konpromisoa berresteko.

Eta bereziki 2020ko egoera honetan, Covid-19 gaitzak eragindako pandemiaren testuinguruan, gure jarduera, gure bizitza eta gizarte osoarena baldintzatuta dagoen honetan, eta ziurgabetasuna erabatekoa denean, gure etorkizunari dagokionez. Baina Hurkoak konpromiso arduratsua hartu du pertsonak kontuan hartuta lan egiten jarraitzeke eta gizarte hobea eraikitzen saiatzeke.

## Pertsonen eta gizartearen premiei adi egon behar dugu



José Ignacio del Pozo

Hurkoako  
kudeatzailea

### XXX. URTEURRENAREN HARIRA EGINDAKO ALDIZKARI BEREZI HONETAN IKUSI AHAL IZAN DUZUEN BEZALA, HURKOA ASKO ALDATU DA SORTU ZENETIK.

Beti izan dugu gogoan zein den gure eginkizuna eta zer oinarri ditugun gure lana betetzeko. Gipuzkoan babesgabetasun-, hauskortasun-, mendetasun-, bakardade- edo abandonu-egoeran dauden pertsonen, batik bat adinekoen eta/edo gaixotasun mentalak dituztenen, premiai asetzeko baliabide bat gara.

Ez gaude hemen beste erakundeek egiten dituzten jarduera berberak egiteko. Baina ez dugu bakarrik lan egin nahi; sare-lana egin behar dugu, eta gure jarduerak beste erakunde batzuekin, batik bat hirugarren gizarte-sektorekoekin, eta erakunde publikoekin elkarlanean egiteko planteatzen ditugu. Pertsonen eta gizartearen premiei adi egon behar dugu; izan ere, premia horiek aldatu egiten dira, eta, hortaz, gure esku hartzeke modua ere aldatu egin behar dugu.

Filosofia horrekin, Hurkoak planteatzen du, epe ertainean eta luzean, artatzen ditugun taldeen premia ugari eta, batzuetan, gorriei adi jarraitzea, aurrera eginez, ikertuz, proiektu berriak garatuz eta gure ezagutza praktikoaz, esperientziaz eta motibazioaz baliatuz.



Irabazi-asmorik gabeko elkarte bat gara, eta gure helburua ez da dirua irabaztea, baizik eta gure balia bideak, bereziki giza balia bideak, adi egotea sufritzen duten pertsonen premien aurrean (kontuan hartuta premia horiek batzuetan ezkutuan egoten direla), lankidetzan jardutea beste profesional eta erakunde batzuekin, eta etengabe prestakuntzak egitea gure eginkizuna kalitate tekniko, gizatasunez eta hurbiltasunez egiteko.

Tutoretzaren arloan, desgaitasunari buruzko lege berri batek aldatu egingo du gure jardunaren esparru juridikoa 2021ean, eta, hortaz, behartu egingo gaitu gure jarduteko modua egokitzea, «laguntzailearen» figura berria erantsiz.

Gure prozedurak eta batik bat gure jarduerak egokitu nahi ditugu, PAAI esku-hartze ereduaren arabera. Eredu horrek pertsona hartzen du ardatz; kontuan hartzen ditu haren bizitza, zaletasunak eta ikuspegiak, eta sustatu egiten ditu haren autonomia eta gaitasunak. Horrez gain, gure lupa handitu behar dugu, eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonen kolektibo batengana iritsi; hain zuzen ere, balia biderik gabe eta oso egoera zailetan daudenengana. Gaur egungo sistemek ez dituzte pertsona horien premiak asetzen.

Eguneko zentroan, COVID-19 pandemiak gauza asko irakatsi dizkigu, eta horietako bat, kezkatzen gaituena, da nola ase ditzakegun erabiltzaileen eta haien familia zaintzaileen premiak, zentrotik atera eta etxera itzultzen direnean. Zerbitzuak emateari utzi behar izan diogu, kutsatze-arriskuagatik. Nola geratzen dira pertsona horiek beren etxean? Itxieren ostean, ikusi dugu haietako askok, itzuli zirenerako, atzerapauso kognitibo eta fisiko handiak eman zituztela. Hainbat galdera sortzen zaizkigu: Nola lagundu diezaikegu erabiltzaileei eta haien familiei, zentrorra joan ezin direnean? Zentrorra etortzen badira ere, etxera itzultzen direnean amaitzen al da gure zerbitzua? Zer egiten dugu zainketen jarraitutasuna bermatzen laguntzeko? Familia askok sufritu egiten dute, etxean behar bezala zaintzen ez dakitelako edo ezin dutelako. 2021ean, programa pilotu bat

jarriko dugu abian beste erakunde batzuekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, premia horri erantzuteko.

Horrez gain, konturatu gara badela patologia psikogeriatrikoak dituzten adinekoen talde handi bat, eta, gaur egun eskaintzen diren zerbitzuekin, pertsona horiek ez direla behar bezala artatzen eta zerbitzu horiek ez daudela horretarako prestatuta. Hainbat galdera sortzen zaizkigu: Pertsona horiek ez al dute etxean jarraitzeko eskubiderik, laguntza egokiarekin, dementzia duten pertsonen antzera? Zentro itxi batean sartzea al da aukera bakarra?

Gizarte-hauskortasuneko egoeran, bakarrik eta etxean laguntza nahikorik gabe dauden adinekoen kasuan, esku hartzeko eremu zabal bat irekitzen zaigu. Kolektibo hori ezkutuan egon da, eta gero eta handiagoa da. Familia-ereduak aldatu egin dira; orain, familiak txikiagoak dira, eta elkarrengandik urrunago daude. Hori dela eta, adineko asko bakarrik bizi dira. Haien nahia hori bada, oso ongi; baina denek jarrai al dezakete etxean laguntzarik gabe? Zer laguntza mota behar dituzte?

Horretarako, Hauskor programarekin ari gara lanean, baina programa hori gehiago landu behar dugu, eta aurrerapausoak eman behar ditugu egin beharreko jarduerak taxutzeko eta lurraldean ezartzeko.

Oraingoz, Hurkoaren hauskortasun-proiektuak 65 urtetik gorako pertsonen ematen die laguntza, baina jabetzen gara badaudela gaixotasun mentalak dituzten pertsona gazteagoak, asko gainera, eta zerbitzuak edo laguntza behar dituztela.

Azkenik, baina garrantzi berarekin, boluntarioei buruzko hausnarketa bat. Haien lana garrantzi handikoa da, baina uste dugu beharrezkoa dela ahalegin handiagoa egitea, programa berriak egitea eta boluntariotzako elkarteekin lan egitea, zerbitzu erakargarriak eskaini ahal izateko, boluntarioak animatuko dituztenak elkartera hurbiltzera eta beste pertsona batzuei laguntzera. Alde horretatik, boluntarioen kopurua inoiz ez da nahikoa, eta premiak gero eta handiagoak izango dira.

# Hurkoa argazkietan





# ZORIONAK

& URTE BERRI ON 2021

NUESTRO MEJOR  
REGALO ES SEGUIR  
A TU LADO.

GURE OPARIRIK  
ONENA ZURE  
ONDOAN  
JARRAITZEA DA.

EGUBERRI ETA  
URTE BERRI ON!!



**Hurkoa**  
URTEURRENA **30** ANIVERSARIO